



## Nire semeari

Oihana Abasolo Pérez

EUSKARA POESIA 14-16 URTE

1. Akzesita

"itsasoan dagoenari"

Beldurra ikusten dut zure begietan,  
olatu eta uhin aunitz lasaitu ezinean,  
helmuga noiz iritsiko zain zarenean.

Oraindik gogora dezaket bihotzean,  
txikitan zenuen begirada baketsuan,  
ekaitzak oraindik iritsi ez zirenean.

Haatik, ur urduri haiek ez ateratzean,  
ura metatzen da zure begi tristeetan,  
bizi duzun sufrimendua helaraztean.

Hala ere, inoren eskua ez jasotzean,  
itotzen hasi zara itsasoko olatuetan,  
eskuak odolez lohitzten dituztenean.

Zure begiek eztanda egin dutenean,  
itsasoa zure malkoetatik ez bereiztean,  
mina sentitu dut berriz nire bihotzean.

Betiko zure argia itzali dela ulertzean;  
nire semea betiko joan dela ohartzean,  
bizitzeko aukera ostu dizutela aditzean.

